

Euskadiko Autonomia Administrazioen gastu arrunta %6,7 hazi zen 2002an, 2001ean baino bi puntu gehiago


2002. urtearen bukaeran, zor bizia BPGaren %6,8an kokatu zen.

2002ko ekitaldian, Euskadiko Autonomia Administrazioen (Eusko Jaurilaritza, foru aldundiak eta udal Administrazioak, euren erakunde autonomoekin eta udalez gairik erakundeekin batera) gastu arruntak %6,7 hazi eta 8.177,1 milioi eurora iritsi ziren, Eustatek emandako datuen arabera. Sarrera arruntak, berriz, %5,7 gehitu eta 10.149,2 milioira iritsi ziren aldi berean.

Bi bilakaeren ondorioz, eragiketa arrunten saldoa (sarrera arruntak ken gastu arruntak) 1.972 milioi eurotan kokatu zen eta %1,6ko igoera izan zuen 2001eko ekitaldiaren aldean.

Sarrera arruntetan, zerga-sarreraren barruan, errubrika honen %32,5 hartu zuen BEZak %3,2 bilakaera positiboa izan zuen. PFEZa %4,3 hazi zen 2002an eta zerga-sarreraren %31,9 hartu zuen. Ehuneko hazkunderik handienak Zerga Bereziek (%9,7) izan zuten, ondoren, Udal Zergek (%6,9) eta azkenik, Sozietate Zergek (%6,5).

2002ko zerga-sarreraren banaketa. %



Iturria: EUSTAT

Gastuen arrunten atalaren barruan, %5,4ko hazkundera metatu zuten langileria-gastuek, eta transferentzia arruntek ere antzeko hazkundera lortu zuten. Osotara, guztizko gastu arrunta %6,7 igo zen 2002ko ekitaldian, eta beraz, aurreko urteko %8,6ko igoera baino txikiagoa izan zen.

Eragiketa arrunten saldoaren hazkundera ahuldu egin zuten inbertsioak eta kapital-transferentziak ere gehitzeak eta ondorioz, aurrekontu-superabit ez-finantzarioa murriztea eragin zuten. Hala, 2001eko 461,9 milioi euroko superabitetik 2002ko 336,5 milioi euro estimatura murriztu zen. Superabit horrek BPGaren %0,7 hartu zuen 2002an.

Kapital-sarrerak 309,8 milioi izan ziren eta kapital-gastuak (inbertsioak eta kapital-transferentziak) 1945 milioi eurotik gorako kopurua lortu zuten. %16,1eko hazkunde nabarmena izan zuten eta 2001eko hazkunde-tasa (%13,1) eta 2000koa (%3,5) nabarmen gainditu zituzten.

Euskadiko Autonomia Administrazioen likidazio finkatua. 2001-2002

	2.001	2.002	Δ%
mila euro			
SARRERAK GUZTIRA	10.249.297	11.186.659	9,1%
Eragiketa Arruntak	9.604.606	10.149.222	5,7%
-Zerga Sarrerak	8.677.508	9.121.014	5,1%
PFEZ	2.788.922	2.908.041	4,3%
Sozietate-zerga	971.916	1.035.203	6,5%
BEZ	2.870.783	2.962.543	3,2%
Zerga Bereziak	1.064.825	1.168.312	9,7%
Udal-zergak	489.037	522.953	6,9%
Bestelako Zergak	492.025	523.962	6,5%
-Bestelako sarrera arruntak	927.098	1.028.208	10,9%
Kapital-eragiketak	195.145	309.896	58,8%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	9.799.751	10.459.118	6,7%
Finantza-eragiketak	449.546	727.541	61,8%
GASTUAK GUZTIRA	10.178.097	10.822.617	6,3%
Eragiketa Arruntak	7.662.886	8.177.199	6,7%
Langileria Gastuak	2.176.838	2.293.632	5,4%
Transferentzia Arruntak	2.820.225	2.973.654	5,4%
Bestelako Gastu Arruntak	2.665.823	2.909.913	9,2%
Inbertsioak eta Kapital-eragiketak	1.674.952	1.945.359	16,1%
Finantzaz besteko eragiketak Guztira	9.337.838	10.122.558	8,4%
Finantza-eragiketak	840.259	700.059	-16,7%

Iturria: EUSTAT

Zor bizia 2.776,4 milioira murriztuta egon zen, baina 2002. urtearen bukaeran 3.047,9 milioira iritsi zen, hots, BPGaren %6,8ra. 2002an, 636,5 milioiko zor berria egin zen eta urrekoaren 367,8 milioi amortizatu ziren.

EUSKADIKO AUTONOMIA ADMINISTRAZIOEN DATU BATERATUAK. 2002

	mila euro				
	GUZTIZKO BATERATUA	EUSKO JAURL.	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
SARRERA ARRUNTAK	10.149.222	5.739.481	1.649.852	5.102.052	3.286.562
GASTU ARRUNTAK	8.177.199	4.763.240	1.537.442	4.604.036	2.901.206
ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA	1.972.023	976.241	112.410	498.016	385.356
KAPITAL SARRERAK	309.896	140.200	77.240	94.949	117.574
KAPITAL GASTUAK	1.945.359	788.666	192.947	609.753	474.060
AURREKONTU-SALDO EZ-FINANTZIARIOA	336.560	327.775	-3.297	-16.788	28.870

ZOR BIZIA (Amortizatzeke 02-12-31)	3.047.964	1.552.861	106.559	929.564	458.980
---	-----------	-----------	---------	---------	---------

Iturria: EUSTAT

Euskadiko Autonomia Administrazioek, guztira, 58.718 pertsona zituzten lanean 2002. urtean, aurreko urtean baino %1,3 gehiago. Merkataritza-sozietateak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak barne hartuta, Autonomia Administrazioek 87.644 pertsonari ematen diete lana, hots, 2001. urtean baino %1,4 gehiagori. Horrenbestez, Euskal AEko ekonomiako landun guztien %9,8 ari dira administrazio horietan.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es
Harremanetarako pertsona: Javier Aranburu
Tlf:+34-945-01 75 99 Faxa:+34-945-01 75 01
Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es